ZARAUZKO UDALBATZARRAREN AKTA

EGUNA, ORDUA ETA LEKUA:

- 2014ko Maiatzak 28.
- Entsegua: 9:30-10:00; Udalbatzarra: 10:00-11:00.
- Zarauzko Udaletxea, udalbatzar aretoa.

PARTAIDEAK:

Zarauzko Udala:

- Juan Luis Illarramendi, Zarauzko alkatea.
- Alizia Osa, ingurumen zinegotzia.
- Jabier Etxaburu, Agenda 21eko zinegotzia.
- Mikel Goenaga, herrilan zinegotzia.
- Karmele Alberdi, hirigintza zinegotzia.
- Begoña Rodriguez, ingurumen teknikaria.
- Nerea Ollokiegi, Agenda 21eko teknikaria.

Zarauzko ikastetxeak:

- Antoniano Ikastetxea, Iñaki Erostarbe irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- La Salle Ikastetxea, Arantxa Guarretxena irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Lizardi Institutua, Jaione Suinaga irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Orokieta Herri Eskola, Antxon Etxeberria irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Oteitza Lizeoa, Jokin Camino irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Salbatore Mitxelena Ikastola, Josean Elola irakasle koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.

ARAZI:

- Eneko Salaberria, Araziko koordinatzailea.

BILERAREN HELBURUAK:

1. Ikasturtean zehar egindako lanaren **aurkezpena** egitea, ikastetxeetako ordezkariek bidalitako argazkien bitartez.
2. Zarauzko ikasleek elikadura jasangarriaren inguruko diagnostikoa egin ondoren, Udal ordezkariei luzatzen dizkieten **proposamenak** aurkeztea, herriaren egoera hobetzeko helburuarekin.
3. Zarauzko ikasleek elikadura jasangarriaren inguruko egoera hobetzeko hartzen dituzten **konpromisoak** aurkeztea.
4. Ikasleen **galderak, zalantzak edo bestelako ekarpenak** bideratzea.

BILERAREN BILAKAERA:

Zarauzko alkateak ikasleei ongietorria eman ondoren, Nerea Ollokiegi Agenda 21eko teknikariak Udal ordezkariak aurkeztu ditu: Juan Luis Illarramendi, Zarauzko alkatea, Alizia Osa, ingurumen zinegotzia, Jabier Etxaburu, Agenda 21eko zinegotzia, Mikel Goenaga, herrilan zinegotzia, Karmele Alberdi, merkataritza zinegotzia eta Begoña Rodriguez, ingurumen teknikaria.

Jarraian, Zarauzko ikasleek ikasturtean zehar egindako lana islatzen duten argazkien segida proiektatu da, ikastetxearen barne zein kanpoaldean burututako ekintzak aurkeztuz. Behin udalbatzarraren sarrera eginda, proposamenak aurkezteari ekin zaio.

ELIKADURA JASANGARRIAREN INGURUKO PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK:

1go proposamena: Merkatu plazako kideekin, baserritarrekin.... elkarte bat sortu, ekintza ezberdinak egiteko.(Murkil elkartean txertatuz, beste elkarte bat, diru laguntzak...). Azoka eta denda txikiak suspertu (publizitatea, kanpainak...), supermerkatu handiek egiten duten publizitateari aurre egiteko.
Harturiko konpromisoa: Azoka eta denda txikietan erosketak egingo ditugu eta lagun eta familia animatuko ditugu gauza bera egin dezaten.

Udalaren erantzuna: Baserritarrek badute ekologikoa egiten dutenen elkartea, Biolur du izena, eta horiek ahalegin handia egiten ari dira, propaganda egiteko, azoka bereziak antolatzeko eta abar.
Lehengo urtean udal azoka apaindu genuen, panel berriak jarriz, eta bertan baserritarren lana eta funtzio goraipatzen.

2. proposamena: Baserritarrei produktu ekologikoak ekoizteko laguntza teknologiko eta ekonomikoa eskaintzea.
Harturiko konpromisoa: Produktu ekologikoak gehiago kontsumitzera animatuko gara eta ingurukoak ere gauza bera egin dezaten ahaleginduko gara.

Udalaren erantzuna: Udalak ere apustu garbia egin nahi du ekologikoaren alde, osasuntsua eta ingurumenarekiko hobea delako. Horregatik hitzarmena sinatu dugu Biolurrekin, udalaren aldetik ahal duguna egiteko prest gaudelako. Urtero egiten dugu ekologikoaren azoka berezia, hitzaldiak, aurten udal baratzeak ekologikoak izan behar dutela erabaki dugu...

3. proposamena: Ikastaroak antolatu elikagai osasuntsu eta dieta orekatuaren gaiekin, eta nahi izanez gero menu ezberdinak sukaldatu eta dastatu.
Harturiko konpromisoa: Elikadura orekatua izatea. Herriko jatetxeetan, bertako eta garaiko elikagaiak eskaintzeko konpromezua arautua izatea. Industrialki egindako produktuak ahalik eta gutxien erostea edo hartzea. Herriko produktuak erosi.

Udalaren erantzuna: Ikastetxe guztiekin adostu beharko litzateke lehendabizi. Aztertuko da.

4. proposamena: Zarauzko ikastetxetan sukaldaritza klaseak ematea, umeek txikitatik janari jasangarria jaten ohitzeko eta aldi berean ere prestatzen ere ikasteko.
Harturiko konpromisoak: Janaria ahalik eta ondoen aprobetxatzen saiatuko gara eta hondakinak sailkatuta botako ditugu.

Udalaren erantzuna: Ekintza hau ere oso interesgarria iruditzen zaigu eta gainera era polita, sustatu nahi ditugun helburuak denok poliki poliki barneratzeko (oso modan baitaude sukalde kontuak). Eta horregatik aurten Bilolurrekin prestatuko dugu ekitaldia, lehenengo baserrietara joan, produktua aukeratu eta ondoren sukaldatu eta dastatu, errezeta berriak ikasiz. Hasteko bailara mailan egingo dugu, Urola kostan, baina ondo ateratzen bada, ondoren ikusi daiteke nola zabaldu eta nola egin

ikastetxeetan. Turismoren bitartez, pintxo tailerrak antolatu dira.

5. proposamena: Produktuen jatorria beti adierazi produktuetan bai saltoki handitan bai txikitan. Garbi adierazi dadila elikagaiaren jatorria, bertakoa, garaian garaikoa. Bertako produktuak direnean argi adierazi, nongoak, zein baserritarrenak, … adierazi dadila saltokietan guk jakin dezagun.
Harturiko konpromisoa: Erosteko garaian aukera ezberdinak daudenean, bertan ekoiztutako produktuak erostea.

Udalaren erantzuna: Bai. Honi gero eta garrantzi gehiago eman nahi diogu guztiak. Bada baserritarren mugimendu bat EHKO izenez biltzen ari direna eta helburu hori dute. Jendeari garbi adierazi beraien produktuetan ekologikoaz gain, garaikoa dela, bertakoa dela.. Pentsatzen ari dira nola egin hori guztia. Udalak ere nahi luke baserritarren merkatuko postuetan zein baserrikoa den adieraztea. Tolosako merkatuan egin dute lan hori eta pentsatzen ari gara Zarautzen ere, merkatuko postuetan baserriaren izena jartzea.
Arrandegietan bai adierazita dago, jatetxeetan ere denboraldiaren arabera adierazten dute. EROSKIko atal batean ere azaltzen dira.

6. proposamena: Herriko hainbat txokotan dauden elikagai makinak, kalitatezko laranja zuku eta fruitu freskoenak izatea bermatu, produktu jasangarriak egotea.
Harturiko konpromisoa: Produktu naturalagoak erosi. Produktuen jatorriari ere erreparatu eta ahal den neurrian bertakoa erosi.

Udalaren erantzuna: Produktuen jatorria beti adierazi produktuetan bai saltoki handitan bai txikitan. Garbi adierazi dadila elikagaiaren jatorria, bertakoa, garaian garaikoa. Bertako produktuak direnean argi adierazi, nongoak, zein baserritarrenak, … adierazi dadila saltokietan guk jakin dezagun.

7. proposamena: Baratza gehiago jarri edo antolatu eta langabetuei utzi beraiek kudeatu ditzaten.
Harturiko konpromisoa: Herriko langabetuek aukera bat izan dezakete baratza bat kudeatzea uzten badiegu. Inguru jasangarri eta solidarioagoa lortuko genuke, eta beharra duten askorentzako irtenbide egokia izan liteke.

Udalaren erantzuna: Udalak baratzeak prestatu zituen eta aurten gehiago ere prestatu dira. Guztira 175 bat baratze daude. Oso harrera ona egiten diete erabiltzaileek. Orain, aurtenetik aurrera, ekologikoa egin beharko dute eta horretarako ikastaroak emango dizkiegu.

8. proposamena: Urrutitik ekarritako elikagaiaren eskaintza murriztu dadila. Urrutiko produktuak ahalik eta gutxien eskaintzen hasi daitezela dendetan.
Harturiko konpromisoa: Askotan urrutikoak merkeago direlako erosten ditugu, baina, haiek zein baldintzatan ekoiztu dituzte? Ekoizleei bidezko ordainsaririk ematen al zaie? Etxe handiek asko erostearen truke ongi ordaintzen al dute? Horrelako hausnarketak bultzatuz, gure inguruko ekoizle txikiekiko atxikimendua lantzea garrantzitsua dela uste dugu. Pixka bat gehiago ordainduz hurbiltasuna, kalitate hobea eta jasangarritasuna gure egiten ditugulako.

Udalaren erantzuna: Bertako produktuak kontsumitu nahi dituztenentzat badaude aukera desberdinak. Adibidez “kontsumo taldeak”. Horiek baserritarrekin harreman zuzena dute eta garaian garaikoa prestatzen die baserritarrek eta kontsumitzaileak badaki nondik datorren, nola ekoiztu den... Gainera baserrietara bisitak ere egiten dituzte eta hitzaldiak eta abar entolatzen dituzte.

9. proposamena: Dendetako (Eroski, DIA...) elikagai soberakinak beharra dutenen artean banatzeko politikak gidatu.
Harturiko konpromisoa: Erosketak egin baino lehen, ditugun beharrak aztertu eta hori bakarrik erostea. Janaria ahalik eta ondoen aprobetxatu eta janari hondarrak edukiontzi marroira botatzea.
Udalaren erantzuna: Zarauzko daturik ez dauzkate elikagai nahiko ez duten pertsonen inguruan. Egun Zarautzen lan karitatiboa egiten da CARITAS bitartez. Hala ere, horri aurre egiteko sistema bat sortzea beharezkoa da, eskubide bat delako. Caritasek asteazkenero egiten du banaketa (5 dendari

eta jatetxe baten laguntza); Elikagaien bankuak urtean 4 aldiz egiten du banaketa (Europa eta Eroski). Jangela sozialaren beharra ote dagoen aztertuko da.

10. proposamena: Herriko azoka indartzea.
Harturiko konpromisoa: Bertako eta garaiko elikagaiak ezagutzea eta kontsumitzea, eta, ahal den neurrian, erosketak azokan eta denda txikietan egitea.
Udalaren erantzuna: Aipatu dugu lehen ere apaindu egin dugula azoka, baserritarrekin harremanetan gaudela, baserrien izena jartzeko, azoka berezian ere parte hartuko dute... Udalak badaki garrantzi handia dutela gure baserritarrek. Elikagai osasuntsuak ematen dizkigutelako, baina baita ere paisajea zainzten digutelako, kultura baten euskarri direlako. Horregatik urtez urte zerbait antolatzen dugu. Lehengo urtean azoka bereziarekin hasi ginen, baserritarrei bazkaria eskaini genien, azoka apaindu genuen... Aurten emakume baserritarrari omenaldia egin diegu, Gipuzkoa, Bizkaia eta arabako 80 bat emakume etorri ziren... Eta urtez urte ahaleginduko gara arlo hau lantzen. Merkatua indartu egingo da. Merkatu plaza ahalik eta programa (kulturalak etab.) gehienetan sartzen dute.
Mugikortasuna ere jasangarria izan behar du: garraio publikoa, bizikletak... Erosketak egin daitezke kotxe pribatua erabili gabe. Herri barruan beste modu batean mugitzen ikasi behar dugu. TAOaren hedapena ere bide horretatik doa.

11. proposamena: Telazko poltsak eta tuperrak eskaintzeko kanpaina bat egin jendeak plastikozko poltsak eskatzeari utzi diezaion.
Harturiko konpromisoa: Erosketak egitera goazenean, etxetik telazko poltsak eramango ditugu.
Udalaren erantzuna: Telazko poltsak eta tuperren kanpainak egin genituen, udal elkarterekin batera, eta arrakasta handia izan zuten. Jende askok hartu zituen eta oso pozik. Baina pentsatzen dugu orain gutxiago erabiltzen direla eta, arrazoi duzue, berriro kanpaina egin beharko litzateke, jendea berriro erabiltzen has dadin.

12. proposamena: Bilgarri eta ontzi gutxiago dituzten salgaiak hautatzea bultzatu.
Harturiko konpromisoa: Bertako produktuak erosiko ditugu, ontziratu gabekoak edo birzikla daitezkeen poltsak dituztenak.
Udalaren erantzuna: Bilgarri gutxiago erabili araztea, ez dago udalaren esku. Badaude lege batzuk, baina oso arinak dira.
Kontsumitzaileek begiratu beharko dugu zein produktuk dituen bilgarri gutxiago eta horiek erosi. Merkatuko produktuek adibidez bilgarri gutxi izaten dute (ez dute poliespaneko bandejarik eta bilgarri bereizirik...) Esne makina erabiltzen badugu ere ontzi hondakin gutxiago sortuko dugu...).

Proposamenak erantzun ondoren, entzule gisa etorri diren ikasleei galderak edo bestelako ekarpenak egiteko aukera luzatu zaie.

Agenda 21eko zinegotziak ikasleei egindako lanagatik eskerrak eman dizkie, pertsonak garela eta ez kontsumitzaileak azpimarratuz. Gainera, Zarautzen osasunaren arloa bereziki ikertzen ari dela aipatu du.
Azkenik, alkateak, Ikasleen parte-hartzea eskertuz, udalbatzarrari amaiera eman eta prestaturiko hamaiketakoa hartzekoa gonbitea luzatu du.

Eranskina: Zarauzko udalbatzarreko aurkezpena.

Elikadura Jasangarria

Eskolako Agenda 21
2013-2014
Udalbatzarra

Udalbatzarrera iritsi bitarteko bidea...

Aztertu beharreko gaiaren aukeraketa:

ELIKADURA JASANGARRIA

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

Udalbatzarrera iritsi bitarteko bidea…

Herriko egoera aztertzeko lan handia egin dugu:

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

Udalbatzarrera iritsi bitarteko bidea…

Herriko egoera aztertzeko lan handia egin dugu:

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

Udalbatzarrera iritsi bitarteko bidea…

Herriko egoera aztertzeko lan handia egin dugu:

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

Udalbatzarrera iritsi bitarteko bidea…

Udal Jarraipen Foroa:

Udala eta ikasleak proiektu bera bultzatuz.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

Udalbatzarrera iritsi bitarteko bidea…

Eskolen Arteko Foroa:

Zarauzko ikastetxe guztietako ikasleak adostasunaren bila.

Beraz, behin udalbatzarrean...

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena

Iratxe Aizpurua. LH 5

Ikastetxea

Orokieta Herri Eskola.

Proposamena

Azoka eta denda txikiak suspertu.

Harturiko konpromezua

Azoka eta denda txikietan erosketak egingo ditugu eta lagun eta familia animatuko ditugu gauza bera egin dezaten.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena

Peru Hernández. LH 6

Ikastetxea

Orokieta Herri Eskola.

Proposamena

Zarauzko baserritarrei produktu ekologikoak ekoizteko laguntza eskaini.

Harturiko konpromezua

Produktu ekologikoak gehiago kontsumitzera animatuko gara eta ingurukoak ere gauza bera egin dezaten ahaleginduko gara.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Proposamenak

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Orokieta Herri Eskolako Ingurumen Batzordea

2013-2014

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Gorka Goenaga eta Iñigo Irazabal

Ikastetxea: Salbatore Mitxelena

Proposamena: Ikastaroak antolatu elikagai osasuntsu eta dieta orekatuaren gaiekin, eta ahal izanez gero menu ezberdinak sukaldatu eta dastatu, eta antolatzen diren herri bazkarietara zabaldu.

Harturiko konpromezua: -Elikadura orekatua izatea.

-Herriko jatetxeetan, bertako eta garaiko elikagaiak eskaintzeko konpromezua arautua izatea.

-Industrialki egindako produktuak ahalik eta gutxien erostea edo hartzea.

-Herriko produktuak erosi.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Ainara Gonzalez eta Danel Ansuategi

Ikastetxea: Salbatore Mitxelena Ikastola

Proposamena:

Zarauzko ikastetxetan sukaldaritza klaseak ematea, umeek txikitatik janari jasangarria jaten ohitzeko eta, aldi berean, prestatzen ere ikasteko.

Harturiko konpromezua: Janaria ahalik eta ondoen aprobetxatzen saiatuko gara eta hondakinak sailkatuta botako ditugu.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Adrian Riveiro

Ikastetxea: Antoniano Ikastetxea

Proposamena: **Produktuen jatorria beti adierazi produktuetan bai saltoki handitan bai txikitan. Garbi adierazi dadila elikagaiaren jatorria, bertakoa, garaian garaikoa. Bertako produktuak direnean argi adierazi, nongoak, zein baserritarrenak, ... garbi adierazi dezatela saltokietan, guk jakin dezagun.**

Harturiko konpromezua: Erosteko garaian aukera ezberdinak daudenean, bertan ekoiztutako produktuak erostea.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: June Otaegi

Ikastetxea: Antoniano Ikastetxea

Proposamena: **Herriko hainbat txokotan dauden elikagai makinak, kalitatezko laranja zuku eta fruitu freskoenak izatea bermatu, produktu jasangarriak egotea.**

Harturiko konpromezua: Produktu naturalagoak erosi. Produktuen jatorriari ere erreparatu eta ahal den neurrian bertakoa erosi.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Andrea Hamill

Ikastetxea: La Salle

Proposamena: **Bertako produktuen aldeko kanpaina burutu.**

Harturiko konpromezua:
Askotan urrutikoak merkeago direlako erosten ditugu, baina, haiek zein baldintzatan ekoiztu dituzte?
Ekoizleei bidezko ordainsaririk ematen al zaie?
Etxe handiek asko erostearen truke ongi ordaintzen al dute?
Horrelako hausnarketak bultzatuz, gure inguruko ekoizle txikiekiko atxikimendua lantzea garrantzitsua dela uste dugu. Pixka bat gehiago ordainduz hurbiltasuna, kalitate hobea eta jasangarritasuna gure egiten ditugulako.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Xabier Isasti

Ikastetxea: La Salle

Proposamena: **Udal eremuan baratza gehiago sortzeko lurrak eskeini eta langabetuei utzi beraiek kudeatu ditzaten.**

Harturiko konpromezua: Herriko langabetuek aukera bat izan dezakete baratza bat kudeatzea uzten badiegu. Inguru jasangarri eta solidarioagoa lortuko genuke, eta beharra duten askorentzako irtenbide egokia izan liteke.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: **AITZIBER ERRAZKIN**

Ikastetxea: **LIZARDI BHI**

Proposamena:

SALTOKIETAN ZAKARRONTZIRA BOTATZEN DIREN ELIKAGAI SOBERAKINEI IRTENBIDE EGOKIAGOA BILATZEA

Harturiko konpromezuak:

- **EROSKETAK EGIN BAINO LEHEN, DITUGUN BEHARRAK AZTERTU ETA HORI BAKARRIK EROSTEA.**
- **JANARIA AHALIK ETA ONDOEN APROBETXATU ETA JANARI HONDARRAK EDUKIONTZI MARROIRA BOTATZEA.**

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | **ELIKADURA JASANGARRIA**

Proposamena:

Saltoki handietan, eta baita denda txikietan ere, zakarrontzira botatzen diren elikagai soberakinei irtenbide egokiagoa bilatzea.

Harturiko konpromezuak:

•Erosketak egin baino lehen, ditugun beharrak aztertu eta hori bakarrik erostea.
•Janaria ahalik eta ondoen aprobetxatu eta janari hondarrak edukiontzi marroira botatzea.

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: **JON ADURRIAGA**

Ikastetxea: **LIZARDI BHI**

Proposamena:

HERRIKO AZOKA INDARTZEA

Harturiko konpromezuak:

BERTAKO ETA GARAIKO ELIKAGAIAK EZAGUTZEA ETA KONTSUMITZEA ETA, AHAL DEN NEURRIAN, EROSKETAK AZOKAN ETA DENDA TXIKIETAN EGITEA

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

Proposamena: **Herriko azoka indartzea**

Harturiko konpromezuak:

Bertako eta garaiko elikagaiak ezagutzea eta kontsumitzea, eta, ahal den neurrian, erosketak azokan eta denda txikietan egitea.

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Maria Basañez Elorrieta

Ikastetxea: Oteitza Lizeo Politeknikoa.

Proposamena: Telazko poltsak eta tuperrak eskaintzeko kanpaina bat egin jendeak plastikozko poltsak erabiltzeari uzteko.

Harturiko konpromezua: Erosketak egitera goazenean, etxetik telazko poltsak eramango ditugu..

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

2013-2014 IKASTURTEKO UDALBATZARRA

Ikaslearen izena: Nahia Arruti Makazaga

Ikastetxea: Oteitza Lizeo Politeknikoa

Proposamena:
Bilgarri eta ontzi gutxiago dituzten salgaiak hautatzea bultzatu.

Harturiko konpromezua:
Bertako produktuak erosiko ditugu, ontziratu gabekoak edo birzikla daitezkeen poltsak dituztenak.

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ELIKADURA JASANGARRIA

ZARAUZKO ESKOLAKO AGENDA 21 | ZARATA ETA UHINAK

Elikadura Jasangarria

Eskolako Agenda 21
2013-2014
Udalbatzarra